



Kodea:

1. maila (B1) | Azterketa idatzia

Deiturak:

Izena:

NA:

	Ariketa	Puntuazioa, gutxienez	Puntuazioa, gehienez	Denbora
Azterketa idatzia	Idazmena	15	30	60 min







Egitekoa

Jarraian proposatzen zaizkizun bi gaietako **bat** aukeratu behar duzu, eta ondoren garatu eskatzen zaizuna kontuan hartuz.

Oharrak:

- Idazteko boligrafoa erabili.
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten.
- Gogoratu gutxieneko hitz kopurua bete behar duzula. **Gutxienez, 140 hitz idatzi behar dituzu. Idazlana egiteko 60 minutu dituzu.**
- Zure idazlana zuzentzean arlo hauek hartuko dira kontuan:
 - eskatutakoari erantzun diozun
 - testu egokia osatu duzun
 - euskara egokia, zuzena eta aberatsa erabili duzun.

Zirriborroetarako orria
(orri hau ez da zuzenduko)

Aukeratu proposatzen diren bi gai hauetatik **bat**:

1. gaia: Udan ere berton!

Egoera:

Jendea kezkatuta dago, uda heltzen denean herria hutsik geratzen delako. Guztiak kanpora joaten dira eta herria hilik dagoela ematen du. Hori dela eta, herriko aldizkarira, irakurlearen txokora, **gutun** bat idaztea erabaki duzu.

Egitekoa:

Azaldu nolakoak ziren zure txikitako udak herrian, zertan ematen zenuen denbora, norekin egoten zinen, nora joaten zinen... **Kontatu** herrian txikitari edo gaztetan pasa zenuen uda berezi bat. **Adierazi** zergatik izan zen uda hura berezia.

Proposatu zer egin daitekeen herriko udako bizitza berpizteko. Azkenik, **animatu** jendea udan herrian geratzeko.

Idatzi gutuna. Gutxienez, **140 hitz** idatzi beharko dituzu.



2. gaia: Ikasle-trukea

Egoera:

Institutu batean ingeles-irakaslea zara. Aurten ere Ingalaterrako ikastetxe batekin ikasle-trukea egin nahi duzue (astebetekoa). Hori dela eta, ikasleen gurasoei **gutun** bat idaztea erabaki duzu.

Egitekoa:

Kontatu iazko esperientzia nolakoa izan zen, zer egin zuten ikasleek Ingalaterran eta zer egin zuten hona etorri ziren ikasle ingelesek. **Azaldu** ikasle-trukearen onurak zein diren.

Adierazi ingelesa jakitearen garrantzia eta azpimarratu zenbat aprobetxatuko luketen seme-alabek. **Informazioa eman** ikasle-trukearen programari buruz. Azkenik, **anima itzazu** gurasoak parte hartzera.

Idatzi gutuna. Gutxienez, **140 hitz** idatzi beharko dituzu.



Gaia:

5

10

15

20

25

30

35

40

45

50

Hemen ez idatzi

Kodea:

Maila:

1

Idazmena

Puntuazioa:
gehienez, 30
gainditzeko, 15

EMAITZA

1. aztertzailea:

sinadura

Birzuzenketa dagoenean

Azken emaitza

2. aztertzailea:

sinadura

IDAZMENERAKO IRIZPIDEAK

Egokitasuna (%10)

Lotzen zaie testua eskatutako gaiari, solaskideari eta xedeari? Lotzen zaie tonua solaskideen harreman-motari eta xedeari? Badaki lexikoa modalizatzen?

Koherentzia (%25)

Idea nagusiek eta lagungarriek era logikoan eusten diote elkarri? Diskurtsoaren egitura eta horren garapena hurrenkera logikoan daude eginda? Ideia horiek osotasun jakin bati erantzuten diote?

Kohesioa (%15)

Era eraginkorrean erabiltzen ditu testu-antolatzaileak, esaldien, paragrafoen eta testu osoaren arteko lotura egiteko? Badaki baliatzen puntuazio-sistema? Erabiltzen ditu kate anaforikoak (erreferentziak, ordezkapenak, elipsiak...)?

Aberastasuna (%20)

Hizkuntz baliabide ugari eta askotarikoak erabiltzen ditu? Esaldi landuak eta horien baliokideak baliatzen ditu? Baliabide du ordezkapen lexikala (sinonimia, antonimia...)?

Zuzentasuna (%30)

Gramatikaren arauak errespetatzen ditu (ortografia, deklinabidea, aditza, morfologia, sintaxia...)? Gaiari loturiko lexikoa menperatzen du?

	Oso eskasa	Eskasa	Nahikoa	Ona	Oso ona	birz.
0	1	1,5	2,2	3		
0	2	3,8	5,6	7,5		
0	1,2	2,2	3,4	4,5		
0	1,5	3	4,5	6		
0	2,3	4,5	6,8	9		
OROTARA						

Zuzenketa-oharrak

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Birzuzenketa-oharrak

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Atzeko aldean jarrai dezakezu....

Atzeko aldean jarrai dezakezu....